

AURKEZPENA

Duela 25 urte bi webgune baino ez ziren doako edukiak euskaraz eta pdf formatuan eskaintzen zituztenak: “Marjinalia Bilduma” eta Susaren “Armiarma”. Nire ekimena Susarenarekin parekatzeko asmorik txikiena ere ez dut. “Armiarma” ahalegin kolektibo baten emaitza da (euskaraz “herri-lan”, “auzo-lan” edo “herrigintza” esan ohi duguna); nire webgunea, berriz, ahalegin indibidual eta pertsonal baten emaitza da. Bigarren kasu honetan, inoiz ez da hain urrun iristen; mugak daude eta. “Bikaintasun” maila lortu nahi duenak talde lana izan beharko du abiapuntu: editoreak, zuzentzaileak, maketagileak, ilustratzaileak...

Jakina, nik ere izan ditut zuzentzaileak, zeinengana jo dudan batez ere nire lehen garaiko liburuak garbitzeko —oso urruneko garaia jada (1988-1992 urteak gehienbat)—. Baina, gehien markatu nauen edo testu “perfektu”aren ahalegin (utopiko samar) horren bilaketan gehien lagundu didan zuzentzailea aipatu beharko banu, ETBren Euskara Saileko Asier Larrinaga aipatuko nuke bereziki, 30 urtez Sustraia saiorako itzuli ditudan testu guztien % 95 zuzendu baitit. Egia da kasu honetan ez garela literaturaz ari, ikus-entzunezko ekoizpenez baizik, eta, zehazki, telebistarako gidoiez.

Nolanahi ere, ezin duzue imajinatu ere egin zenbat ikasten den itzulpen teknikoak, administratiboak, audiobisualak, juridikoak eta abar egiten. Eskola ikaragarria da, non zuzentasuna nekaezin bilatzeaz gain, aski garbi ere ikasten baita zer den hizkuntza maioritario bat (adibidez, gaztelania) hizkuntza minoritario batera (adibidez, euskarara) ekartzea.

Beti pentsatu izan dut euskarak (eta berekin dakarren guztiak) zerbait inklusiboa izan behar duela. Hala ere, ez nago oso ziur mundu guztiak horren garbi ote duen. Euskaldunok ez gara batzuetan ematen dugun bezain herri batua. Bunker eta txiringito asko daude: ideologikoak, komertzialak, akademikoak... guztiak elkarren artean lehian, nola ez. Eta euskara ez da “giro” horretatik at geratzen.

Ziurrenik, zirkulu horietatik “kanpo” egoteak ez du laguntzen proiektzio “profesionala” izaten, eta are gutxiago ikuspegi komertzial batetik begiratuta, nahiz eta, egia esatea nahi baduzue, urte hauetan guztietan oso gustura egon naiz egon naizen lekuan, hau da, nire webgunean, funtsean

Internet den ezerez horren erdian, estatistikarik gabe, blogik gabe, liburu aurkezpenik gabe, marketinaren tiraniarik gabe (azken batean, argitaletxeak enpresak baino ez dira, zeinen helburu nagusia baita euren produktuak saltzea, hau da, liburuak saltzea —helburu ez-materialak ere badituzten arren, jakina—).

Agian, guzti horretatik bazterturik geratu izanak (Marjinalia izen hibridoa hortik letorke), aukera eman dit, neurri bateraino, nahiko emankorra izateko eta behintzat “obra” bat osatzeko, ez baitago gauza tristeago eta patetikoagorik obrarik gabeko artista baino. Obra horren balioa? Bueno, bakoitzak eman nahi diona, fede gutxi gorabehera onez edo. Zentzu horretan, irakurle maite hori, dena dago zure esku. Badira oso idazle zorrotzak, eta badira oso irakurle zorrotzak. Ez dakit oso ondo nola kabitu naitekeen hor. Esan dezakedan gauza bakarra da beti saiatu naizela nire onena ematen. Nahiz eta, inoiz esan dudan bezala, “beste egoera batean, oraindik ere askoz gehiago eman nezakeelako sentipena geratu zait”.

Oro har, zuzen idatzitako liburu oro irakurtzea merezi duela esango nuke. Gotortu gaitezke eta esan: “Aizu, niri euskaldun *peto-petoek* idatzitako liburuak eman edo bestela zoaz beste norabait bazterrak nahastera”. Bueno, beste irakurle euskaldun batek ere esan lezake: “Aizu, niri literatura unibertsalaren mailako liburuak eman edo bestela zoaz beste norabait bazterrak nahastera”. Eta orduan, zer? Zakarrontzira bota beharko al genituzke literatura unibertsalaren maila ez duten euskarazko liburu guztiak, gure euskal klasikoak barne...?

Despotismo linguistikoetatik urrun, beti uste izan dut gizarteak inklusibotasuna, errespetua, eskuzabaltasuna eta elkartasuna bilatu behar dituela hizkuntzaren erabileran, eta beste errealitate linguistiko batzuen garapena eragozten duten ikuspegi makur eta negatibistetatik urrundu behar duela, hala egin ezik horrek zer ekar dezakeen badakigu-eta: jende askok hizkuntzari bizkarra ematea eta interesa galtzea.

Hizkuntza baten estetikaz ere hitz egin genezake. Eta estetika linguistikoaz hitz egitea eta sen linguistikoaz hitz egitea ziurrenik gauza bera da. Kontua da: hizkuntzei buruz dugun ezagutza, eta bereziki euskarari buruz duguna, zenbateraino da homogenea? Eta, kasu horretan, ez al litzateke hobe bakoitzak erabakitzea, presiorik gabe eta aurreiritzirik gabe, zein hizkuntza-eredurekin identifikatzen den eta sentitzen den “etxean bezala”?

Bestalde, egia da hizkuntzak ez direla gertaera indibidualak, kolektiboak baizik. Eta hor beti bilatu beharko da oreka bat, noski...

“La letra con sangre entra” dio erdal esaera zaharrak. Hau da, gogor ahalegindu behar dugula zerbait ikasteko. Eta zenbat eta gogorrago ahalegindu, orduan eta urrunago iritsiko gara ikaskuntza horretan. Alde horretatik, nik den-dena eman dut; beharbada, gehiegi eman ere. Ez dakit mundu guztiak esan dezakeen hainbeste...

Gaia aldatuz. Liburu digitalez osatutako “bilduma” kontzeptuak urrats bat harago garamatza, liburugintzari dagokionez: lehen eskuizkribuetatik hasi eta Gutenbergen inprentaraino —inprimaketa tipografikoa, Offset inprimaketa eta liburu fisiko bat ale bakar batetik aurrera ekoizteko gai diren egungo teknika digitalak ahaztu gabe—. A zer-nolako iraultza!

Hemen, Marjinalia Bilduman, liburuaren kontzeptu dinamiko, aldakor eta behin-behinekoaz hitz egin dezakegu. Harry Potterren filma dirudi: gaur modu batez idatzita dagoena baliteke bihar beste modu batez idatzita egotea. Are gehiago, baliteke egun batean nobela baten narrazioan topatzea modu sortzaile eta aski dibertigarrian txertaturiko bideoak eta ikus-entzunezko elementuak. Berriro ere, liburutegi aldakorraren kontzeptu borgiarra datorkit burura, kuantifikatzen eta sailkatzen zailak diren funts bibliografikoekin, liburuek eta apalategiek egun batetik bestera jasan ditzaketen metamorfosiak direla eta.

Ez dut esaten sistematikoki egiten dudarik, baina bai egin dudala, eta posible dela *ad aeternum* gauza bera egiten jarraitzea. Beraz, idatzitako liburuak ez lirateke inoiz amaituta egongo, beti egongo lirateke eraldatze-prozesuan, Bilbatzailea (zuen zerbitzari apal hau) desagertzean bakarrik amaituko litzatekeen metamorfosi batean bezala.

Urrats bat harago ere joan gintezke. Adibidez, kode irekiko programa informatikoak datozkit burura. Izan ere, ezingo al genuke horrelako zerbait planteatu? Kode irekiko liburuak alegia; horrela, ondo identifikatutako bertsioetatik abiatuta eta “amaitutako” bertsio bakoitzaren copyrightak aintzat harturik, idazle bakoitzak liburuei beste proiektzio bat (beraren proiektzioa) eman liezaieke, kateari jarraipena emanaz nork bere ikuspegi kultural eta idiomatikotik. Baina beti baldintza batekin: bertsio bakoitza sinatuta eta identifikatuta egotea bertsio berria egin duenaren izen-

abizenekin eta argazkiarekin. Zergatik? Aurpegia eman behar delako, lagunok.

Nonbait esan dut webgune hau “nik neuk kudeatzen dudala”. Bai, horrela izan da 25 urtez. Baina, zorionez, hori aldatzen hasi da. Harremanetan jarri naiz diseinatzaile eta SEO profesional batekin, Borja B., eta zinez ezinezkoa zirudiena errealitate bihurtu du: FrontPageko nire webgune zaharretik abiatuta, HTML lengoaia erabiliz, diseinua biziberritu du, webguneari itxura moderno eta askoz atseginagoa emanez, eta hori guztia... FrontPageri agur esan gabe! Benetako magoa, gure Borja.

Gainera, webgunea Google Search-en indexatu du, ahal izan duen guztia egin du gunea mugikorretara egokitzeko (software zaharkitu honek berez dituen mugekin, noski), oso ukitu polita eman die “Liburu Azalak” orriko argazkiei, liburu zerrendan eta Ganbaran jasotako testuak berrantolatu ditu, index orriaren aurkezpena hobetu du, legezko eta identifikazio oharrek ezin hobeki utzi ditu, webgunea indexatzen laguntzen duten testuei buruzko aholkuak eman dizkit...

Aurrerago, webgune berri bat egingo dugu, baina WordPresen diseinatua. Hasteko, eta nire webgunearen eduki kopuru handiak planteatzen duen zailtasuna dela eta, FrontPageren “klon” bat egitea pentsatu dugu, edukien ikuspuntutik konplexuagoak diren bi orrietan (Marjinalia Bilduman eta Ganbaran) egin beharreko lana gehiegi ez korapilatzeko. Horrela, webgune berria WordPresen izan ondoren, Marjinalia Bilduma orriaren diseinuan jar genezake arreta patxada handiagoz, bertan baitaude online bilduma honetako liburu digital guztiak. Eta, bide batez, bi orri horien gaineko kontrola berreskuratu ahal izango nuke, nik neuk administratzeko modukoak izango bailirateke.

Eta, “bilgarriari” dagokionez, hori izango litzateke dena; izan ere, webgunearen muinari dagokionez, hau da, edukiei dagokienez, edukiek jarraituko dute ekimen honen helburu nagusia izaten; azken batean, idazten dudanean, honelako film-izenburuak etortzen zaizkit burura: “Bizitza ederra da”, “Zeinen ederra den bizitzea!”, eta abar. Idazteak ondo sentiarazten nauela esan nahi dut. Beraz, osasunak uzten badit, bilduma honi artxiboak gehitzen jarraitzea espero dut, baita artxiboak eguneratzen eta edukiak hobetzen ere.

Webgune honen beste alderdi garrantzitsu bat egile eskubideen gaia da. Beti saiatu naiz egile eskubideekin begirunez jokatzeko. Itzulpenen kasuan, horien eskubideak iraungita dauzkaten egileek dira, lege ezarritako urte kopurua igaro delako. Nire liburuen egile eskubideei dagokienez, berriz, argi dago eskubide horiek guztiak neureak direla. Eta, formatu fisikoan argitaratuta dauzkadan liburuen kasuan, bietako bat: edo kontratuak iraungita daude, lege ezarrita zegoen denbora igaro delako; edo, bestela, akordio bat lortu dut editorearekin, hau da, argitalpen fisikoaren eskubide guztiak laga dizkiot argitaratzaileari, edizio digitalaren eskubideak niretzat gordetzen nituen bitartean. Ez dago beste misteriorik.

Aparteko aipamena merezi dute egile, itzultzaile edo transkriptorea ez nauzuen liburu bakanek. Horrelako liburuak salbuespen dira, eta, oro har, liburu horien egileekin auzo- edo adiskidetasun-harreman berezia dut, eta horregatik egin diet leku bat nire webgunean.

Gainerakoan, uste dut formatu fisikoan argitaratutako liburuek oraindik ere bizitza luzea dutela aurretik; izan ere, irakurle askok nahiago izaten dute formatu fisikoa digitala baino (nik neuk oso gustuko dut paperezko formatua), bi formatuak erabili ohi dituztenak ahaztu gabe.

Besterik gabe, amaitutzat emango nuke hemen nire webgunearen aurkezpena. Ez zaitezte zorrotzegiak edo “zekenegiak” izan ni epaitzeko orduan, eta pentsa ezazue hemen denontzako lekua dagoela; egia esan, batzuetan, gehiago da jarrera-kontua beste ezer baino. Ezertan baliagarri izan banatzaizue, primeran. Beti arte, irakurle maiteok!